



**Arartekoaren ebazpena, 2011ko urtarrilaren 14koa, Mutrikuko Udalak “Kalbario bidea” izenekoaren bide publikoa aldatzearen inguruan erantzunik ez emateagatik eta jardunik ez bideratzeagatik.**

### Aurrekariak

(...) jaunak erakunde honetan kexa bat aurkeztu zuen Mutrikuko Udalak Kalbario bidearen inguruan aurkeztutako eskaerei erantzunik ez emateagatik eta jardunik ez bideratzeagatik.

Pertsona horrek esan digu behin baino gehiagotan jo duela udalera, udalerriko herritar batek goian aipatutako bidea aldatu duelako. Zehazki, eskaerak 2005eko irailean, 2006ko apirilaren 3an eta 2008ko urtarrilaren 9an aurkeztu zituen. Horietan, labur-labur, honako hau eskatu zion udalari:

- Jabari publikoko bidearen edukitza berreskuratzeko beharrezko izapideak egin zitzan. Bertatik erreklamatzailerean jabetzako lur batzuetara oinez sar daiteke.
- Lehengo Kalbario bidean aurrera eramandako obrak legeztatze asmoz auzotarrak egindako alegazioak kontuan hartuta, hizpide dugun bidea azken hogeitun urteetan erabili ez dela adierazterakoan, aipatu da gutxi erabiltzeak ez diola eragiten ondasun horren izaera publikoari; inork ezin du bereganatu.
- Obrak egiteko udalaren baimenik jasota egon gabe 2007ko azaroan bide horretan jarritako hormigoizko hodiekin igarotzea asko zailtzen dute eta, hala, bidea oso arriskutsua bihurtu da, lurretara bide publikotik sartzeko legezko eskubidea eragozten baitu.

Kexa onartu ondoren, Mutriku ko Udalari gai horren inguruko informazioa eta bideratutako jarduerak bidaltzeko eskatu genion 2009ko azaroaren 27an bidalitako idazkiaren bitartez.

Egin genuen informazio eskaerari erantzunik eman ez zitzaiola kontuan hartuta, 2010eko urtarrilaren 13an errekerimendu bat bidali genuen eta, ondoren, udaleko idazkariaren aurrean telefono bidezko zenbait gestio egin genituen. Hala ere, ez zen aldeko emaitzarik lortu. Berriz ere informazio eskaera egin genuen 2010eko ekainaren 2ko ohartarazpenaren bitartez eta zenbait alditan alkatearekin harremanetan jartzen saiatu ginen. Dena den, ez genuen lortu helarazi genizkion abisuak aintzat har zitzan. Azkenik, erantzuna jasotzeko azken saiakera egin genuen 2010eko urriaren 27ko idazkiaren bidez baina ez genuen emaitzarik lortu.

Hori guztia ikusirik, epaitzeko ditugun parametroekin bat etorri eta eskuragarri dagoen informazioa kontuan hartuta, honako gogoeta hauek helarazten dizkizut:





## Gogoetak

1. Abiapuntu gisa, gogorazi behar dugu herri-administrazioak behartuta daudela interesdunek egiten dituzten eskaera guztiei berariaz erantzutera. Administrazioak behar bezala izapidetu behar ditu biztanleek aurkezten dituzten idazki guztiak, arin, biziki eta eraginkortasunez, espedientea behin betiko ebatzi edo amaitu arte.

Arartekoak hainbatetan salatu du oso arriskutsua dela administrazioaren isiltasuna, izan ere biztanleak babesik gabeko egoeran kokatzen ditu, ez baitakite administrazioak zer egingo duen beren asmoarekin eta eskatutakoaren inguruko erantzuna berrikustea eragozten baitu.

Biztanle horien erreklamazioak bideratu ez direnez eta horiei erantzun ez zaienez, esan dezakegu administrazioak oker jokatu duela eta Ararteko erakundeak horren berri eman behar du.

Espainiako Konstituzioak berak –103.1. eta 105. artikuluetan– aipatzen du prozedurazko izapide batzuk daudela eta herritarrei benetako erantzuna eman behar zaiela. Alderdi horiek Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuneko 41. artikulua biztanleei ematen dien administrazio egokirako eskubidea osatzen dute (gutun hori Europarako Konstituzioa ezartzen duen Itunak barneratu zuen).

Aitzitik, administrazio txartzat jo behar da artikulua horiek ezartzen duten eginbide funtzionalaren betebeharra urratzea eta administrazioaren jarduna zuzentzen duten printzipio orokorren ez-betetzearen adierazle da, kontuan hartuta jardun horrek, lege aginduz, herritarren zerbitzura egon behar duela (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa -HAAJAPEL-).

2. Horrez guztiaz gain, adierazi behar dugu Mutrikuko Udala erakunde honekin lankidetzan aritzeko prest egon ez zela. Jarduteko modu hori eskatzen diren datu, agiri, txosten edo argibide guztiak, lehentasuna emanik eta al bait lasterren emateko legezko betebeharraren aurkakoa da (Ararteko erakundeak sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 23. artikulua). Laburbilduz, aurrekarietan aipatu dugunaren arabera, udalak ez ditu bete erakunde honekin dituen legezko betebeharrak.
3. Azkenik, kexak planteatzen duen gaiaren mamiari dagokionez, kontua herri-administrazioen ondarea erregulatzen duen araudiaren barruan kokatu behar dugu.

Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 23. artikulua ondare publikoa babestu eta defendatzeko betebeharra xedatzen du. Aipatu xederako, herri-administrazioek behar bezala babestuko dituzte





administraziook osatzen dituzten ondasunak eta eskubideak, erregistroko inskripzioa eskuratuko dute eta horretarako bidezkoak diren administrazio ahalmenak eta ekintza judizialak baliatuko dituzte.

Legeak ezartzen dituen ahalmenen eta eskumenen artean, administrazioek haren ondasuna osatzen duten ondasunen eta eskubideen gainean bidegabe galdutako edukitza berreskuratzeko ahalmena daukate. Berreskuratzeko ekintza hori edonoiz gauzatu ahal izango da (55. artikulua), hizpide izandako ondasunak eta eskubideak jabari publikotzat jotzen badira.

4. Halaber, tokiko araubidearen berariazko arautegiak gaia erregulatzen du eta, zehazki, Tokiko Erakundearen Ondasunen Araudiak -1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa- udalek haien ondarea defendatzeko dituzten ahalmenak xedatzen ditu. Hala, besteak beste, partikularrek salaketak egiten dituztenean ikerketarako ekintza bideratzeko jarraitu beharreko prozedura espezifiko arautzen du; espedientea irekitzea adostu baino lehen, ikerketarako ekintzaren jatorriaren inguruan aurretiko azterlana egin dadin.

Hortaz, Mutrikuko Udalak erreklamatzailak egindako eskaerari behar bezalako erantzuna emateko duen betebeharra ez konplizteaz gain, alde batera utzi ditu ondare publikoa defendatzeari dagokionez dituen betebeharrak, partikular batek ondasun publiko baten inguruan egindako legez kontrako usurpatzea argitzeko jardunik hasi ez duelako.

Mutrikuko Udalak uste du hizpide dugun bidea ez dela publikotzat jotzen, erreklamatzailari eta Arartekoari informazio hori eman nahi izan ez dion arren eta hori aurreko baieztapenaren aurka egon daiteke. Hala ere, honako hau sinesgaitza izango litzateke oso edo fede txarrez jokatu izanaren adierazle: aipatu bidearen egoera juridikoa argi izanik, Mutrikuko Udalak ez du gaiaren berri eman nahi izan. Horregatik, esku artean informaziorik ez dugunez, udal administrazioak ondare publikoa defendatzearen inguruan dituen betebeharrak alde batera utzi dituelakoan gaude, auzotar partikular batek gauzatu duen bide publikoaren aldaketaren aurrean ez baitu ikerketa-ekintzarik hasi, ezta ondoren erreklamatzailak eskatu zuen edukitza berreskuratzeko ahalmena baliatu ere.

Halaber, kasu honetan, egoera are larriagoa da. Izan ere, eragindako auzotarrak -ez dezagun ahaztu bost urte daramatzala udal jarduerarekin- dio haren jabetzako lurretara ezin duela oinez sartu. Hori dela eta, udalak utzi dion aukera bakarra da haren ustez partikular batek usurpatu duen ondasuna defendatzeko beharrezko ekintza judizialak haren kabuz hastea. Kasu honetan, udala ez da ari betetzen herritarren zerbitzura egoteko legezko agindua. Hala, erreklamatzailarentzako auzibidea da aukera bakarra, horrek dakartzan gastuekin eta hizpide dugun bidearen egoera juridikoa egiazta dezaketen aurrekarien eta frogen gaineko ikerketan udal jarduerarik ezaren ziozko zailtasunekin.





Erreklamazioak hizpide duen gaia eta aurreko ataletan azaldutako gogoetak ikusirik, ondorio hauek helarazten dizkizugu:

### Ondorioak

1. Azaldutako gogoetak kontuan hartuta, adierazi behar dugu Mutrikuko Udalak, lege aginduz, arazoizko erantzuna eman behar diola erreklamatzailerak egindako eskaerari, alboko partikular batek aldatutako Kalbario bidearen edukitzaren berreskuratzea balia dezan.
2. Bestalde, esan behar dugu Mutrikuko Udalak ez duela ezein unetan Ararteko erakundearekin elkarlanean aritzeko jarrerarik izan eta, hala, Arartekoa Eusko Legebiltzarreko goi komisario den aldetik, administrazioaren ekintza ilegalak edo bidegabeak zuzentzen saiatzeko daukan betebeharra eragotzi du.
3. Azkenik, azpimarratu behar dugu larria dela udala lankidetzan aritzeko prest egon ez izana eta, ondorioz, zioen idazki honetan gure esku-hartzea amaitutzat eman behar dugula, eragindakoari mahaigaineratutako kexaren inguruko arazoizko erantzuna eman gabe.

